

Proiektuaren izena: **AUXILIUM**

Gazte asko ez dira ikasketetaz asko arduratzen uste dutelako nahiz eta ikasi nota txarrak aterako dituztela. Beraz, zerbitzu honen helburua gazteetan ikasteko gogoia piztea eta horrez gain beste gazte batzuk dirua lortzea, besteei lagunduz. Kasu honetan, ikasketekin. Arazo horiek konpontzeko, "Auxilium" aplikazioa sortu dugu. Aplikazio honi esker ikasketen bidez diru pixka bat lortzeko aukera emango dugu eta klaseak beharko dituztenentzat prezio baxuak egongo dira. Horrela, diru falta eta ikasketetako arazoak konponduko ditu gure Auxilium proiektuak. Gainera, gazteek emango dutenez klasea zure adineko jendea ezagutzeko aukera eskaintzen du, klaseak dinamikoak izanik.

"Auxilium" izenaren arrazoia hurrengoa da: gu ikasleak gara eta askotan itoak sentitzen gara azterketekin, lanarekin... Eta "auxilio" eskatzeko gogoak sentitzen dugu eukitzen dugun agobioarengatik.

Aplikazioak bi funtzio ditu: zuri laguntzea edo laguntzaile izatea. Zure eremuaren arabera, eta zure zalantzen arabera pertsona bat edo beste bat aurkitzea ahalbidetzen dizu Auxilium aplikazioak, bai klaseak emateko edo jasotzeko ere.... Aplikaziora sartzean bi botoi agertuko dira: botoi berde bat eta botoi gorri bat. Botoi berdea, ikasketetan ondo doaztenentzako eta laguntza eskaini nahi dutenentzako izango da. Hau da, irakasleentzat. Botoi gorria, berriz, ikasketetan laguntza behar dutenentzako eta laguntza jaso nahi dutenentzako da. Horrela, aplikazioak klaseak emateko edo jasotzeko aukera ematen du.